



URUMEA IBAIA ETA HAREN GAINEKO ZUBIAK

Donostia itsasoak bustitako hiria da, eta, horretaz gainera, ibai eder batek zeharkatzen du hiri osoa.



RP1 URUMEA IBAIA

Jakin badakizu Donostiatik igarotzen den ibaiak Urumea duela izena. Baina badakizu nondik datorren izen hori eta zer esan nahi duen? Ur mehea da izenaren jatorria, eta ur argia, gardena esan nahi du.

Urumea ibai txikia da, eta Leitzako mendietan sortzen da, Nafarroa aldean. 40 km zeharkatu ondoren, Kantauri itsasora iristen da. Martutene auzotik barrena sartzen da Donostiarra, eta Kortazarren zabalgunean ikus dezakegu itsasoratzen, Urgull mendiaren eta Zurriola hondartzaren artean.

Sakonera txikiko ibaia da, eta horregatik ezin da itsasontziz zeharkatu. Baina, erreparatuz gero, ikusiko duzu hiriko klubetako arraunlari asko ibiltzen direla entrenatzen, piraguitak paseatzen eta, olatu handiak nagusi diren egunetan, surflari ausartak ohol gainera igota.

Urteen poderioz, ibaia kanalizatuz joan da, ez dezan gainezka egin. Horregatik, oso desberdinak dira gaur egungo forma eta beste garai batzuetakoa.





Zenbat zubi eta pasabide ditu Donostiak?

Galdetzen badizugu zenbat zubi dauden Urumea ibaiaren gainean, ziur zalantzak izango dituzula. Horietako asko ikusiko zenituen, bai eta oinez, autoz edo bizikletaz gurutzatu ere. Baina esaten badizugu 14 zubi eta pasabide daudela, ziur ez zenuela espero.

Batzuek ehun urte baino gehiago dituzte; beste batzuk oraindik orain berri dituzte. Batzuk trenaren igarotzeko dira, beste batzuk oinez gurutzatzeko... Eta hamaika istoriotxo daude haiei buruz kontatzeko. Haietako batzuk ikusiko ditugu!



RP2 ZURRIOLAKO EDO KURSAALEKO ZUBIA

Itsasotik hurbilen dagoen zubia denez, askok lehenbizikoa dela uste dute. Baina, urteei erreparatzen badiegu, Donostian eraikitako hirugarren zubia da. Alde Zaharra eta Gros auzoa lotzen ditu.



BAZENEKIEN...?

1921ean eraiki zuten hormigoiz, baina, handik hiru urtera, aldatu egin behar izan zuten egitura, itsasoaren etengabeke erasoengatik. Etengabe konpondu dute: 1993an, erdira arindu zuten zubiaren pisua, hormigoia modernoago eta arinago bati esker.



Hainbat elementuk egiten dute zubi hori bakar:

- Sei kale-argi erraldoi dauzka, eta, horregatik, jendeak «seiko bastoia» izena jarri zion.
- Ez du arkurik, eta haren baoak zuzenak dira, ibai gaineko kale bat balitz bezala.

Itsasotik gertuen dagoen zubia denez, berak jasaten du olatuen inpakturik handiena; denborale egunetan, sekulako ikuskizuna da olatuak gainetik nola pasatzen diren ikustea.



Zurriolako zubia lehen planoan; bigarren planoan, berriz, Gran Kursaal kasinoa, inaugurazio egunean, 1922ko uztailearen 29an.



Gran Kursaal kasinoak berak eraiki zuten, kasinoari zerbitzu emateko.

Zubi hori ez zuten ordaindu ez Udalak, ez hiriak. Gran Kursaal kasinorako sarbide zuzena izateko eraiki zuten. Zubia bera inauguratu eta biharamunean ireki zuten Gran Kursaal ere.



Gran Kursaal Donostiako obra handienetako bat izan zen XX. mendearen lehen laurdenean; Belle Époque garaiko irudirik bereizgarrietako bat.



Gran Kursaal kasino hura gaur egun ez da existitzen, eta Kursaal auditoriuma dago haren tokian.



RP3 SANTA KATALINA ZUBIA

Hiriko lehen zubaia izan zen, eta, ehunka urtez, bakarra. Horregatik, zubi horrexek dauka historia gehien. Gure hiria oso txikia zen garaian, zubaia harresietatik kanpo geratzen zen, eta Madril-Irun errepide nagusiaren zati zen.

1873ra arte zubaia egurrezkoa izan zen, eta, urte horretan, Kortazarrek berak diseinatutako harrizko bat ipini zuten. Harrizko zubi hura paraleloan eraiki zuten, trafikoa inoiz ez eteteko.

Jatorrian, bost begi zituen (ikusi argazki zaharretan!). Hala ere, begietako bat lurperatuta geratu zen 1905ean, Urumea ibaia Frantzia Pasealekua sortzeko bideratu zutenean.

1891n, 6 metro gehitu zizkioten zabalean, trafikoari egokitzeko. Eta, 1924an, gaur egun ezagutzen ditugun 25 metroetara iritsi zen. Handik urtebetera, burdinurtuzko farola erraldoiak gehitu zizkioten.





Arkitektura oso sinplea du, apaindura gutxirekin, baina kolore ugari izateagatik da deigarria, askotariko materialekin egina baita.

Santa Katalina deitu zioten zubiari; izan ere, santa berari eskainitako eliza bat zegoen handik oso hurbil. Alabaina, garai hartako donostiarrek «Zubi zarra» deitzen zioten.

Zubia egurrezkoa izatearen arrazoia zen, besteak beste, erraz blokeatu edo suntsitu zitekeela, hiria erasotzeko arriskuan zegoenean.

1377ko dokumentu bati esker, badakigu norbaitek izokinak harrapatzen zituenean inguru horretan, zubiko maniobra-ontziei eman behar ziela arrantzatutako aleren bat. Eta horrek hala jarraitu zuen, harik eta zubia zeharkatu ahal izateko bidesari bat jarri zuten arte. Horregatik, inguruko herrietakoak Donostiara etortzen zirenean beren produktuak saltzera, prezioa igo behar izaten zieten.

Erdi Aroan, Urumea ibaia bideratu gabe zegoenean, portu bat zegoen han. Zubia erditik zabaltzen zen, itsasontziak sartu eta irten ahal izateko.





RP4 MARIA KRISTINA ZUBIA

Donostiako zubirik dotoreena eta apainduena da.

1893an eraiki zuten, baina garai hartan egurrezko behin-behineko pasabide bat zen, Erdigunetik tren-geltoki inauguratu berrira igarotzeko —Norteko geltokira, alegia—, baita Atotxako zezen-plazara edo belodromora joateko ere, garai hartan Egia auzoan baitzeuden.

Haxe da gure zubietan deigarriena. Izkinetako lau obeliskoak 18

metro garai dira, eta haien gainean lau zaldi-irudi handi eta hiru armarri daude: Donostiakoa, Euskadikoa eta Espainiakoa.

Gainera, ondo begiratzen badiozu, ikusiko duzu kale-argien gainean dragoiak ageri direla, eta barandan eta arkuetan, berriz, izaki mitologiko asko daudela —lau ontzi, lau lamia hegalekin, lauogeit Neptunoren buru baino gehiago, hamabi arraun eta lau maskor—.



Bazenekien...?

Zubia, hotela bezalaxe, Maria Kristina erreginari eskainia da.

Baina kontuz! Gogoan izan beste Maria Kristina garrantzitsu bat ere izan genuela gure hirian, Mandasko dukesa, eta hari eskaini geniola Cristina Enea.



Jatorrizko zubitik ibiliko ote gara?

Sentitzen dugu, baina ez da hala. Jatorrizko diseinua mantendu zen arren, erabat berreraiki behar izan zuten 1984-85ean. Kontu handiz, zubia eraitsiz joan ziren: luzetara egin zuten, ogia xerratan mozten ariko bagina bezala.

Eta, pieza bat kentzen zutenean, berria jartzen zuten. 1.500 pieza!

Zubiaren oinarria besterik ez zen aldatu, hamabost arku jarri baitzituzten begi bakoitzean. Arku horiek dira egungo zubiaren euskarria.



ERRONKA: *Animatzen zara Maria Kristina zubian dauden lau lamietako bi aurkitzera?*

Beste zubi batzuk oso ezagun batzuk

Hiriko hiru zubi garrantzitsuenak aipatu dizkizugu, baina beste hamaika zubi eta pasabide ditugu ibaian zehar:




• MUNDAIZ ZUBIA

Laugarren zubi bezala ezagutzen da, eta ibaia euskarririk gabe zeharkatzen duen lehena da! Oso gustuko dugu zubi hori; izan ere, gure parke gogokoenetako bi elkartzen ditu: Araba parkea (Amaran) eta Cristina Enea.

• AGIRRE LEHENDAKARI ZUBIA

Donostiako zubirik modernoenetako bat da, altzairuzko penduluetatik baitago zintzilik.



• REALAREN ZUBIA

Ibaiaren bihurgunean dagoen zubia da. Duela gutxira arte, oso zubi polita eta desberdina zen. «Zubi bikoitza» zen: trenak, autoak eta oinezkoak igarotzen ziren haren gainetik. «Burdinazko Zubia» deitzen zitzaion. Orain bi zubi dira: bata bestearen ondoan, baina bananduta.





*Badakizu nor zen Mikel Laboa?
Seguru behin baino gehiagotan
abestu duzula haren abestirik
ezagunena... Hauxe dio: «Hegoak
ebaki banizkio...»*



• MIKEL LABOA PASABIDEA

Pasabide horrek Loiola, Loiolako Erriberak eta Egia lotzen ditu, Cristina Enea parkeetik igaroz.

Pasabide hori lasai asko gurutza dezakegu bizikletaz edo patinetean, autoak ezin baitira igaro.

• KUARTELETAKO ZUBIA

Armadaren lurretan daudenez, beraiak bakarrik erabiltzen dute zubi hori. Militarrek Alfontso XIII.aren zubia izenarekin ezagutzen dute, hark inauguratu baitzuen 1926an.



• MARTUTENeko ZUBIA

Gaur egun Martuteneko zubi dagoen lekuan, 1846an altxatutako beste bat zegoen, auzora sartzeko aukera ematen zuena.

2016an eraiki zuten gaur egungoa, ibai-ibilgua errazteko. Izan ere, ibilgua handitzeko aprobetxatu zuten, eta hirigintza-hobekuntzak egin zituzten ibaiertzean paseatzeko.